

Iturraran Jauna, Gernikako Parrokoa zen urte haietan, Bermeotik 1914ean etorrita. Markinarra zen, eta euskaraz sermolari ospetsua hemengo inguruetan. Beldurrez ala gogoz idatziko zuen Iturraranek agindu hau?

Hiru urte geroago, Errigoitin egon nintzen osabaren etxean latina ikasten. Zortzietako Mezan bakarrik egiten zen sermoia euskaraz, eta egindua errespetatuz, labur-labur. Gero, beluko Mezan, erdaraz egiten zen sermoia. Hura zen euskararen egoera larria! ■ *Jose A. Arana Martija.*

«Irudi ona» eta laguntza

Bizkaiko Aurrezki Kutxak bidalirik, «1978.eko kultural egitarauaren aurrerapena» jaso dut. 8 saileko aurreprograma: Temas Vizcaínos, Txisturako musika-lanen konposaketaren txapelketa, euskal abesbatz doinuen sorketarako II. Leiaketa, Felipe Arrese-Beitia olerki sariketa, Bitor Garitaonaindia antzerki saria, eta gero Bckak, arte sorkuntzarako eta ikasketa zientifiko eta teknikoetarako bereziki.

Ekintza hauetariko batzu, lehendik datozenak dira. Berriak, beste batzu. Hauetan eta haietan, bistakoa da berrikuntz aire bat debilela tartean. Asko pozten gaitu kulturarako eta batipat euskal kulturarako eskaintzen den diru horrek, ez da zalantzarik.

Programa honen aurrean, edo, hobe, programa hau dela atxakia, laguntza mota honen hauiaz pentsatzen hasia naiz.

Nork ez daki Aurrezki Kutxak ez direla kulturgintzarako sortu? Ez da hau haien lehen eginkizuna, beraz. Noski esetz. Hala ere, herritik zuzenki bizi direnez, herriari begirako kulturazko zertxobait egitera beharturik aurkitzen bide dira. Hala sentitzen dut eurlazio hori. Eta euskaltzaletasuna areagotu den aldi honetan, makina bat gauza aldatu da finantz etxe eta bestelako zenbaitetan. Errazago lortzen dugu gaur haiengandik laguntasuna. Ekintza ederrik aurrera eramatea ere posible izan da.

Ez dago ukatzerik: Aurrezki Kutxa bakoitza, Bankuak, zerbait egin nahirik dabilta euskal kulturari dagokionez. Orain hasten dira batzu, azken orduan; aurreko bideari jarraituz, areago doaz beste batzu. «Irudi ona»ren problema. Baina hori haien problema da. Gurea, bestelakoa da. Askoz sakonagoa. Euskal kulturaren premiak hondogabeak bait dira. Honetantxe dator problema: haien eta gure interesak nola lotu? «Irudi ona»ren atzetik doazelako. Publizitate saileko laguntza eman nahi badute soilki, euskal kultura seriotan hartu ez duten seinalea. Euskal kulturarekiko laguntzak, azalekoa ez beste dena izan behar du: sakona, funtsezkoa, egiturala, oinharri-oinharrikoa.

Euskal kulturaren premien handia ikusita, eta hasi berria dugun aldia kontutan ukanik, laguntza mota hauen programaketak ere badu garrantzirik. Ahalegin asko alferrik galtzea gerta bait daiteke bestela. Gertatu dena, bestalde. Esaterako, urtean lau nobela sariketa egin beharrean, hobe litzateke laguntza eremu gehiagotara literatur hedatzea. Adibide bat da. Holako mila aipa genezake. Azpimarratu nahi dudana, hau da: diruetxe bakoitza bere kasa ibili beharrean, desiragarri eta beharrezko dela denen artean laguntza ororen plangintza bat muntatzea. Protagonismoak ere baztertuz. ■ *Joan Alzibar.*